

## 5.- SARIAK

Sari atal bakoitzean lau finalista aukeratuko ditu epaimahaiak, gehienez. 2025eko azaroaren hasierako egunetan emango da ezagutzera finalistak zer lan edota zein kazetari edo komunikaziogile diren. Bi saridunak, berriz, sari banaketa eguneko ekitaldian emango dira ezagutzera, ez lehenago. Sari banaketa ekitaldian, bertan izango dira zortzi finalistak.

Hona 37. Rikardo Arregi Kazetaritza Saria osatzen duten bi sariak:

- **Kazetaritza Saria:** 9.000 euro eta Xabier Laka eskultoreak berariaz egindako oroitikurra.
- **Komunikazio Saria:** 9.000 euro eta Xabier Laka eskultoreak berariaz egindako oroitikurra.

Gainera, 37. Rikardo Arregi Kazetaritza Sariko finalistei, saridunei izan ezik, Xabier Lakak sarirako egindako serigrafia bana emango zaie.

Sariak norbanaka nahiz taldeka egindako lanei emandakoak izan daitezke, baina zatietzinak dira.

Sarietako edozein hutsik utzi ahal izango du epaimahaiak.

## 6.- EPAIMAHAIA

Ondorengo hauek osatzen dute epaimahaia:

- **Mahaiburua:** Marta Lasa Goñi, Andoaingo Udaleko Euskararen Normalizaziorako zinegotzi arduraduna, edo horrek bere ordezkoko gisa izendatutako udalkidea.
- **Mahaikideak:** Miren Berasategi Zeberio, Eneko Bidegain Aire, Itxaro Borda, Angel Erro Jimenez, Libe Mimenza Castillo eta Pantxika Maitia.
- **Idazkaria:** Arantza Aguado Perugorria, Andoaingo Udaleko euskara teknikaria.

Epaimahaiak aukera izango du bere erabakiak hartzeko prozesuan kanpoko kolaboratzaileen laguntza eskuratzeko, hala-ko beharrik ikusiko balu.

## 7.- SARIEI BURUZKO AZKEN ERABAKIA

Sari banaketa **2025eko azaroaren 26an** ospatuko da, Andoaingo Bastero Kulturgunean, beste zenbaiten artean zortzi finalistak bertan direla, eta han emango da ezagutzera epaimahaiak bi sarien gainean hartutako azken erabakia. Epaimahaiak hartutako *Azken Erabakia* apelaezina izango da.

## 8.- BALDINTZAK ONARTZEA

Sari honetara aurkezteak oinarriok ontzat ematea dakar berarekin, eta saria jasotzeko nahitaezkoa izango da oinarriotan finkatutako betebeharrak osorik betetzea.

ZIRINBARA  
ESTUDIO GRAFICA

rikardo  
arregi



2025

RAKS

37.

RIKARDO  
ARREGI  
KAZETARITZA  
SARIA



Euskal idazle, kazetari eta kultur eragilea (Andoain, 1942-Mendaro, 1969). Idazle argi, sakon eta zorrotza, euskal prosa kazetaritzaren molde berrietan barrena abiarazi zuen. 1966ko urtarrilean Euskaltzaindiari alfabetatze saila antola zezan proposatu zion, eta hura-ze izan zen euskalduntzeko mugimenduaren hasiera. Idazlan nagusiak “Politika Estrukturak europear alkartasunean” (1965); “Politikaren atarian” (1969); “Herriaren lekuko” (1972)...



RIKARDO  
ARREGI  
KAZETARITZA  
37 SARIA



Euskararen normalizazioak ezinbestez behar ditu euskaraz egindako kazetaritza eta komunikazio prestu eta modernoa, kalitatekoa eta garaian garaiko beharrianetara egokitua. Helburu horren alde, Andoaingo Udalak 37. Rikardo Arregi Kazetaritza Sarirako deialdia egiten du, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren dirulaguntzaz, ondoko hauek direlarik aipatu sari horren oinarriak:

### 1.- SARIAREN XEDEA

Euskarazko kazetaritzaren eta komunikazioaren kalitatea, bikaintasuna eta berrikuntza bultzatzea da *Rikardo Arregi Kazetaritza Sariaren* helburua. Horrela, bada, 2024ko irailaren 16tik 2025eko irailaren 15era bitartean kazetaritzan eta komunikazioan euskaraz egin diren lanen kalitatea eta bikaintasuna jendaurrean aitortzea eta saritzea da sari honen xedea, aurrerago aipatzen diren ezaugarrien arabera epaimahaiak eredugarrien irizten dituen lanak sarituz.

### 2.- SARI-ATALAK

Ondoko bi atalotan banatzen da saria:

- **Kazetaritza saria**
- **Komunikazio saria**

Epaimahaiak bere esku izango du euskal kazetaritzaren historian ezinbesteko erreferentzia izan diren erakunde, ekimen eta pertsonen **Ohorezko mugarria** emateko aukera. Ohorezko aipamena, beraz, bete-betea lotzen zaie euskarazko kazetaritzaren joan-etorrian eragin erabakigarria izan duten gertakariei zein ibilbide pertsonalei.

### 3.- SARI-ATALEN EZAUGARRIAK

Honakoak dira *Kazetaritza Saria* eta *Komunikazio Saria* deiturikoen ezaugarri nagusiak:

telebista  
hizkera  
**komunikazioa**  
youtuberra  
bloga

### KAZETARITZA SARIA

2024ko irailaren 16tik 2025eko irailaren 15era bitartean egunkari eta aldizkarietan, agerkari digitaletan edo irrati eta telebistetan euskaraz plazaratu izan diren lanek daukate saria eskuratzeko aukera.

Berriemaitzarekin zuzen-zuzenean lotutako saria da *Kazetaritza Saria*. Edozein mota edo generotako kazetaritza-lanek dute saria eskuratzeko aukera. Epaimahaiak, hortaz, inolako genero-mugarik gabe erabakiko du saria. Izan ere, sari honek bultzatu nahi du informazio edo iritzi-emate edo interpretazio generoetako edukien kalitatea, edozein delarik erabilitako sormen-modua, narrazio-mota, zein igorpen-eredua.

Saria erabakitzeko irizpide nagusiak honako hauek izango dira: kalitatea, berrikuntza eta eredugarritasuna, eredugarritasuna hala euskal kazetaritzarako nola inguruan egiten denerako. Irizpide horiek aplikatzekoan kontuan hartuko dira, besteak beste, kontakizun informatiboaren gaineko datu-bilketa eta lanketa, informazio iturrien maila, zehaztasuna, ikuspegi aniztasuna, hizkera, edukiaren balio periodistikoa, sakontasuna edo iritzi/balorazioaz osatutako pieza periodistikoa. Kontuan hartuko da, halaber, jorratutako kontakizunaren interes publikoa, zeinak gizarte eta herriarren interesekoa izan behar baitu.

telebista  
hizkera  
**komunikazioa**  
youtuberra  
bloga

Ondorioz, aipatutako irizpideen arabera, kazetari batek zein kazetari taldeak ezein euskarritan egindako artikulua nahiz erreportajea, bakana edo sorta, saritu ahal izango du epaimahaiak: zutabea, sekzioa, irrati edo telebistako erreportaje bat edo erreportaje-sorta bat, programa bat, liburu bat...

### KOMUNIKAZIO SARIA

Saria eskuratzeko aukera dute, euskarazko komunikazioaren mesedetan urrats berritzaile direnek edo izan litezkeenek. Betiere, 2024ko irailaren 16tik 2025eko irailaren 15era bitartean euskaraz sortu, ekoitzi eta, kasua bada, zabaldutako komunikazio ekintza bat, komunikazio proiektu bat edo komunikazio proposamen bat izan behar du nahitaez. Era guztietako narratibek zein komunikazioaren esparru zabaleko egitasmo pertsonal, kolektibo eta enpresarial guztiek dute tokia sari honetan, baita unibertsitateetako komunikazio ikasketetako gradu amaierako proiektuek ere.

Saria erabakitzeko irizpideen artean kontuan hartuko da, sarituko dena berritzailea, bide urratzailea edota teknologia aurreratua baliatzen duena izatea. Nolanahi ere, bereziki baloratuko da ekintza edo proiektu komunikatiiboak euskal komunitatea elikatze erakusten duen edo izan dezakeen eragina, berrikuntza teknologikoa kontuan hartuz eta bazterrean utzi gabe, baina modu baztertzailan

albisteak  
digitala  
estiloa  
sareak

hartu gabe. Testuinguru horretan garrantzitsua litzateke berritzaile izatea –edozeran berritzaile–, kalitatezkoa izatea, bide-urratzaile izatea, teknologia aurreratuaz baliatzea, etabar.

### 4.- LANAK AURKEZTEAZ

Parte hartze zabala sustatzeko helburuarekin, proposamenak aurkezteko aukera irekita dago. Horrela, bada, edonork aurkez ditzake *Kazetaritza Sariaren* edota *Komunikazio Sariaren* jabe izatearen aldeko proposamenak, norbere lanen gainekoak edo besterenak, eta proposamenak aurkezteko deia egiten zaie bereziki autoreei, komunikabideei oro har eta euskarazko kazetaritza eta komunikazioarekiko interesa duten guztiei.

Hala eta guztiz ere, saria *-Kazetaritza Saria* zein *Komunikazio Saria-* eskuratzeko ez da beharrezkoa izango inork aldeztu aurretik lanak eta/edo proposamenak aurkeztea. Izan ere, epaimahaiak egokien irizten duen moduan egingo ditu sari horiek erabakitzeko egin beharreko jarraipen eta hautaketa lanak, ahalmena baitu sariaren gaineko erabakiak hartzeko, hautagaitza aurkeztua izan edo ez.

Proposamenak aurkezteko epea amaituko da 2025eko irailaren 19an, eta honako ezaugarriak adierazi beharko dira: a) proposatutako lanaren edo/eta autorearen identifikazioa (la-

naren izenburua, autorearen izen-deiturak); b) argitaratutakoa denean, argitalpenaren kopia, erreferentzia zehatza edo, Interneten eskuragarri baldin badago, horren lotura; c) argitaratu gabeko proiektua baldin bada, proiektua bera bidaliko da dagozkion euskarrietan. Halaber, proposamenaren merezimenduei buruzko azalpen laburra ere bidaliko da. Hauetako modu baten bidez bidaliko dira proposamenak:

\* Posta arruntaz:

**Andoaingo Udaleko Euskara Zerbitzua**  
**La Salle etorbidea, 6, Urigain kultur etxea, 20140 Andoain**

ala

\* Posta elektronikoz:  
**raks@andoain.eus**

Aurkeztutako lanak, edozein euskarritan aurkeztuta ere, ezingo dira berreskuratu.

txioa  
Internet  
publizitatea  
erreportajea